

# IZIAR-KO

## AMA-REN KONDAIRA LABURTSOA<sup>1</sup>

### I

#### ARRENDEA

Iziar mendiko nere Ama maitea: Zure kondaira gozo, eder, gogoan-garria, ta zuk egin dituzun mirari aomen andiko-ak eztira gaur bear bezela esagutzen zure Gipuzkoa-ko erri noble ta malso an. Ara, bada, zergatik, aspaldiñoetan ordoitzen daukantan nere lumatño kaskarra ar-turik, asten naizan zure izen bedeinkatu maitagarria zabaltze-koas-moetan, aztuta dauden agerpen ta zure bitartez eginda-ko gertaera mirarizko batzuek nolabait argitara emanaz.

Beti izan naiz, ó nere Ama, mintzoera-gabea, argi gutşikoa ta moldakaitza; eta gaur, astiroago egin bear nuan lanerako egun gutsi dauzkatenean, ñoiz baño moldakaitzago izan bearko det, zuk lagun-tzen ezpadirazu. Argi ta lagun zadazu, bada; zerren orrela bakarrik gerta leiteke, nere lantñoa, egokia izango ezpada ere, ganora on ta oniritzikoa izatea, borondaterik obenakiñ egiña dan bezela.

Nere gañ artu dedan lanbidea zure gauza dan ezkerroan, zugan jar-tzen det nere esperanza.

Ez dezadazula galdu erazi.

### II

#### IZIAR-KO ERRIA

Ez naiz itzen jaiotzak ikasten zalea, ta eztet nai sartu Iziar-en izena

---

(1) Monografía premiada con *Un lirio de plata* en los Juegos florales de esta ciudad en 1894.

nandik datorren azterrentzera: batzuek diote *Izar*-etik duala jatorria, beste batzuek *It̄saso-ziar*-etik: au jakitea naikoa da guretzat.—Eztegu ere ikusiko *Vardulia* –tarrakiduki zuen azkenengo lurra Iziar-bazan edo ezpazan; ezta ere *Trizio Tubortikoren* uria bada edo ezpada. Gauza abek oso illunak billatzen ditut, eta beaberta<sup>1</sup> luzeak bearko ginduzke zerbait argitaratzeko, edo bear bada, len baño illuntasun ta ezta-baida andiagoak utzitzeko, batzuetan gerta oi dan bezela.

Ziur dakigun gauza da, Iziar lenagoko denboretan *Errege-mendi* deitua,<sup>2</sup> euskaldunen artean antziñenetako erri bat dala, Deba, Mendaro ta Arrua-ren gurasua, et̄se purube argitsu askoren jabea, umant ugarien jaiotokia.<sup>3</sup> Iziar dago jarrita Anduz mendiaren oñetan, Debatik Zumaya–rakoerrege bidearen aldapako goien–goienean, ifar-alde-tik menderatua daukan kantauriako itchasoari begira Mat̄sit̄sako-tik asita Igerpuntara-ñokoo zabalera guzian. Gaur, Iziar, Deba-ren barru-tiko et̄sadi bat baño ezta: dauzka ogeitamar enbat et̄se eleiz inguruan, berreun edo geiago baserri, lau apaiz jaun (apaiz-artzaia ta iru laguntzalle), alkate ordezeko bat, osagille<sup>4</sup> berezia ta onen laguntari bat.

Au da gaurko Iziar, noizbaiteko denboretan Zeruetako Erregiñak bere jarrilekutzat aukeratu zuan tokia, mendi aldea, Arraten Aranza-zu-n eta beste Euskal-erriko leku batzuetan aukeratu zuan bezela, egiazko euskaldunak ta errugabeko jenteak mendi aldean bizitzen ziralako noski; it̄sas aurea, arrantzale tristen atsegiñ ta argi nagusia izan nai zualako bear bada. Orregatik euskal erruezak ta kantauriako arranzaleak maita izan dute ainbateraño beuren Iziarko Ama, eta Iziarko Amak erakutsi du naiko aldiz seme oyentzat duan maitasun estalparia.

### III

#### ELEIZA

Selgas–enesan antzera, gizonen et̄seak dianagusituko balitu bezela,

(1) Exámen.

(2) Mont-Real.

(3) Ikusi lezake gauza aben gañean D. Pedro José Aldazabalen liburuba. Iruñan, Martiñ José-ren moldiztegian, 1766-ko urtean.

(4) Médico.

beste Iziar-ko etseak baño goragochoago jasotzen da garaibe ta andient-  
tsua Maria Santaren jauregia. Zeruetako gure Erregiña toki onetan  
agertu zanetik irugarren edo laugarren egiñaldikua izan bear—du kan-  
potik kare—arri landuz egiña da gira guztian; dorre gabea, bada tsi-  
mistak bota zuan, lenengo 1718-ko abenduaren 22-an, eta berriz  
1728-ko Burullaren 22-an. Otoigope<sup>1</sup> bakarra du: luzeran neurtakin-  
dako 105 oñ dauzka eta 54 zabaleran. Orañ artian iduki duan erre-  
tablo edo antzela oso balio andikoa ta chit ondo egiña zan: beregatik  
*Vargas Ponce* jaunak Madrid—ko lagun bati egindako eskutitz batean,  
onela esaten zion:<sup>2</sup> «Billatu nuan, bada, (Iziarren) altare bat ia godoe-  
»tarren gisakoa, zati edo gorputz tsikitšo askorekiñ; eta zati edo gor-  
»putz bakoitzean, barrualdera ta kanpoalderontz egindako nisōak,  
»barandeste antzeko metolakiñ sostengatuta: itz batean, apaindasima<sup>3</sup>  
»gisa—tik Maneak<sup>4</sup> altsatzen edo aurreratzen jun ziran. Baña baita ere  
»ezagutu nuan kana bete baño asitšugoko (*erretablo ura*) eragostzen-  
»duen irudi geigieta egokitasun andia ziamartea, doide<sup>5</sup> tšukuna toles  
»erabakiak, etc., etc., alatan non (*esan gentzakean*) Juan Araoz gurea  
»otologille ohea zala etšegillea baño. Batez ere Mariaren zerura igoe-  
»rako otallua chit da atal ona. (Etzera zu tšarra). Altara onen balioa  
»izkribatu nizun, eta orain izkribatzen det pintatu ta urretutzea millata  
»irureun dukaten—baliatu izan zitzaiola Diego Araoz, bestearen anaiari  
»zeñek egiñ zuan 1561-ko urtean; eta urrengoan oraindik biak bizi  
»ziran. Onaño erretablua—rena.»

«Ez nuan jakiñ nork egin zuan eleiza, goian ipiñi dedan urtetik  
»ononzkoa da, eta erretablo au lenagoko eleizarentzat egiña, bada au—  
»rrealdeko zatišo bat bakarrik arrapatzen du. Gaur aldekoa otoigope-  
»batekoa da, eta liburuak<sup>6</sup> esaten dituan neurriak dauzka.»

«Arti da ona eskui aldeko Jesuitena esaten zayon kapilla baten, bi  
»kana baño luzeago—ko eunean pintatuta dagon Santa Katalina bat.  
«Vargas—ek eztu jakiñ zeñen eskuak egiña dan, eta eskualdi bat azote

(1) Nave.

(2) On Karmelo Echegaray—koak Diputazio jaunaren aginduz izkribatu duan  
Oroimengarrían izendatzen du—Donostian—1893.

(3) Onela deitzen dio Larramendik erdaldunak *plateresko* esaten dioten egite-  
gisari.

(4) Las Artes.

(5) Proporción.

(6) Aldazal—enak.

»emango lieke karez uriztatu duenai, kapilla tšuritzean. Aserraldi bat »ematen diot ikusta edo bizitazalea banitz bezela: gelditela apaiz-»artzaya adierazia; eta naikon da Iziar-entzat.»

Vargas Ponze-konela tšistetsu ta alaikiró ziazaltzen zuan erretablo ederra, nolatan eztakigula su artu, ta erre zan erdi aldekan naikuacho, oraiñ bi urte dala; baña su garra-ren indar guziak makaldu ziran Ama Birjiñaren oñetan, ta etzioten ikutu bat egin Zeruko Erregiñaren irudi bedinkatuari. Iziarko eleiz-batzarreak antzola ura berrietatzeko dara-biltzan asmoetan eztakit zer erabakiko duen, zar berritzea, edo oso berria egitea: nolanai ere, badakit gai au gizon jakintsuen eskuetan darabillela, ta ajola onean erabakiko duela bear dan araua.

Vargas-ek izendatutako Santa Katalinaren pintura, iñoiz arduragabe kare tantoz betea egon bada ere, gaurdaño beintzat naikua ondo iraudu, eta oraindik iraunkorra dagola deritzot. Nik billatzen dedan gauza mingarria da, argi ohea dagon toki batean ez egotea pintura ikusgarri ura; baña au beste eleiza askotan billatzen degun falta da, eta ez beti eleiz gizonak mane ezjakiñak diralako. Iñoiz gerta oi da, eleiz artzaia mane zalea azkarra ta argitsua izan arren, edo onelako famili kapilla baten jabe dalako, edo errietako milla ipui ta esan mesanakgatik, eleiz-artzaiak nai lukeana eziñ egitea. Eztakit ezer, baña ori gertatu leike Iziar-en ere.

Sakristia zabal ederra eta Ama Birjiñaren ganbaratšo ontzu egin-dako bat altaranagusi atzean daude. Sakristi orretan ikusi ditut 1885-ko jente billaran eleiz onetara ekarritako estandarreak, eta pinturatšo bi: bata Aldazabal jaun batek egiña, (eztakit Maria Iziarkoaren egillea dan edo ez) non agertzen dan egillea bera Ama Santaren oñetan erre-gu antzean: bestea da don Juan José Echaniz-ek egiña esan dan 1885-eko jentien batu aldirako. Orduan Iziarren egin ziran jostaldietan aldeera eraman zuan pinturatšo onek.

Onenbesterekiñ utzi genezake ezagututzat gaur Iziar-ek daukan eleiza.

¿Eta lenagokuak? Lenagokuen berri gutši dakigu. Nere esku artean erabilli dituban liburu ta paper zarretan eztet gauza esangarririk billatu, au ezpada: Lenengoko eleiza tšikitšoa zala. Iziar-en orduan bizi zan jentiaentzat añakoa: gerora, Astigarribia ta Elorriaga-ko lenen-lenengo eleizen ondoetan bizi zan jentea Iziar-ko Andre Maria-ren ingurura batu zanean, eleiz andiago bat egin zala, erria anditu zan beze-

la; eta geroago oraindik, erria zabaldu zanean geiago, eleiz andiago ta eder bat jaso zala berriz.

Jakiña da gure Euskal-errian eztirala gure aitonak batere ajolatsuak izan egiten zituen gauzak izkribatzeko, eta orregatikan gaur gure begiruneak ezin du urrutietan ikusi bear lukean argitasunarekiñ.

#### IV

### AGERTUERA.

Luzaro-ko gizaldietan, eakida askotan aotik aora datorren kontaera zarrak, onela dio izan zala Mariaren agertuera. Iziar-ko mendi onetan erririk zan baño askozaz lenagotikan, toki onetan baserri bat edo beste eta berak oso sakabanatuak ziran denboretan, zijoan baserri bateko neskatša gazte birtutetsu bat gaur eleiza altsatzen dan lekutik aurrera, ikusi zuanean, oso arriturikan, Andre tšit eder bat, umetšo maitagarri batekiñ, argi zerutar diztiariz inguratua, sasi tartean arantza beltz baten gañean zegola. Oso miraritua gelditu zan neskatš ura, baño misterio ura argitzeko zeukan gogoak indar emanik, aurreratu zan gauza ura obeto ikustera eta bere begien aurrean zeukana egia edo gezurra zan jakiteagatik, kurutze Santuaren señaleara eginda, galdetu zion Andre eder ari: *¿Zeñ zera, eta zer nai dezu?* Orduan, Maria Santaren irudiak, bere ezpañ tšit garbiak erekirik, erantzun zituan itz abek: *Ni naiz Maria, Aingeruen Erregiña, ta nere berondatea da jaso dezadazuela eleiza bat toki onetan, nun gusto dedan egotea fa anbaldua izatea nere semearekin bateta.* Eta beriala agindu zion neskatš arri jua zedilla ikusi zuan gauzaren albistea ematera, eta sinisterazo zezala Mariaren ontasun maitagarriak nai zuala toki artan eleiza egitea bere serbitza edo menekiarako.

Neskatš doez betetako ura aldendu zan toki zorioneko artatik Mariaganako amodioz urtua, bere agindu gozoa betetzeko asmoetan; baño asko kosta zitzaion gaišoari ikusi zuan miraria siñisterazitzea. Iñork etzuan nai siñistatu lenengoan neskatš arren esana: etzan gutšia gorako, gauza berria zan, gauza miragarrikoa, ta bestetik, kondairari kentzen zion indarra emakume gazte ura errueza, tolesgabea ta argigutšikoa izateak. Jenteak pentsantzen zuen baserri ume arren begitanzio-ren

(1) Venerada.

bat izango zuala, edo, zerbait ikusi bazuan, etzuala adituko bear zan bezela; baña añ gogor, añ biziró ta segurantzean esaten zuan bere kondaira eze, bere begiekin zer zan ikusteagatik, asi ziran Maria-ren agertuerako toki santuruntz, neskat̄sa albiste emantzallaren laguntzan. Eldu ziranean, ikusi zuen egia zala kontatu zuan miraria, bada an zegoan Jaungoikoaren Amaren Iruri eder bat, umet̄so maitagarria besuetan zuala, sasi tartean, arantza baten gañean. Orduan, batzuk diote, Mariaren irudiak itz egin zuala, esanaz, nola zan bere borondatea leku artan bertan eleiza bat egitea bere begirunerako.

Ikaraturik ta konort bage bezela gelditu ziran jenteak ikusi zuen gauza arrigarriarekiñ. Beren zenzunera etorri ziranean, auspezturikan dendenak zeru ta lurreko Erregiñaren aurrean, eman ziozkaten milla biotzeko esker beren mendian era oitzake<sup>1</sup> artan agertu zalako, ta biurtu ziran gero bakoitza bere et̄sera Jaungoiko Altsua bedeinkatzen zuela, ta Maria Santaren borondatea betetzeko asmo bizi ta egiazkoe-tan.

Eztet nai itz bat bakarra geiago ipiñi nere aldetik kondaira gozotsu oni: desloratu egingo nuke. Gauzarik aundiensuenak esan oi dira erreztasun gaitz batean, ta or eramaten due beti egiaren sigillua.

DOMINGO AGIRRE-KOAK.

*(Bukatuko da)*



(1) Oitzake—Oitu-zake—Desusado.

# IZIAR-KO

## AMA-REN KONDAIRA LABURT̄SOA



V

MIRARIAK<sup>1</sup>

Asko dira Andra Maria Iziar-koaren bitartez egin diran mirari izugarrizkoak.

Lenengoa da Iziar-en bertan gertatu zana Ama Santaren Iru-di bedeinkatua agertuta berialaseñ, Jaungoikoaren Ama Santa agertu izan dan beste toki askotan bezela. Iziartarrak, t̄sit poz-turik Zeruetako Erregiña beuren lur-rean agertu zalako, manea-tu ziran lasterka andian, Ama Maria-rentzat eleiza t̄sukun bat jasotzeko; baña ikusirik agertoki ura desegoki ta desberdint̄soa zala, erabaki zuen, gorago, Zabaleta deritzaion tokian, sasoi ba-ten S. Bartolomé-ren eleizacho zan lekuan, eleiz berria egitea.

Asi ziran lanean, batu zituen beurak nai zuen toki artara, arri, ol, kare ta beste bear ziran ekai guziak; baña usterik gut̄sien zuen goiz batean, ikusi zuen, oso arriturik, beuren lan guzia desegiñ zuala norbaitek, bada Zabaletako landara eraman zituen arri, ol ta kareak Ama Birjiña agertu zan tokira jet̄siak zeuden.

Langille fedetsu ayek pentsatu zuen gauza oker ura errita-

(1) Ezin nezake eskatu ta ezte eskatzen. emen ipiñiko ditudan mirarientzat gi-zonaren esanak merezi duan baño siñiste geiago. Batzuek aotik aora etorriak dira, geienak Aldazabal jaunaren liburutik artzen ditut: danak; uste det, Eleizak azte-rendu ta erabaki gabeak izango dirala. Jarria gelditzen da, bada, nere gogorpea.\*

\* Protesta.

rren baten egitada biurria, zala, ta berriz, pazienza arturik, jaso zituen ekai guziak Zabaleta-ko landara. Alperrikako lana, bada laster agertu ziran berriro ager-tokira aldatuak.

Etzuen orrenbesterekiñ sinistatu Iziartarrak Ama Birjiñaren egitada zala ekaien alderatzea; etzuten uste inortara ere, zerutarren gauza zanik. Ikusi zitueneau bidean gurdi gurpillak egindako utsuneak, berriz gizon biurriren baten egintada zalako pensamentuan indarturik, irugarren aldiz igo zitutzen ekai danak Zabaletara; baña irugarren aldiz izan ziran jetsiak lengo tokira.

Oraindik ere etziran konturatu: gurdi gurrillen utsuneak an zeuden, lenengoak bezela, eta aztarna orrek gogortzen zituana eginkizun artan setatsarreko gizonenbat zebillelako us-tean. Arta zituen, baba, ekai guziak, ta eraman zituen ¡laugarreanean! beurak eleiza egin nai zuen lekura, Zabaletara; baña jakiñ zediñ beiñ nortzuk zebiltzan aldrabeskeri artan, erabaki zuen gizon gordelari batzuk ipintzia, gabaz, bear ziran tokietan. Jarri ziran, bada, ajola andian, gordetzalle asko, zeintzuek ikusi zuen beuren begiekiñ, Zeruetako aingeru lirañ batzuek, gorputzdunak izan balira bezela, beuren eskuetan artuta eramaten zuela lengo tokira, langilleak Zabaletako landak inguratu zuen ekai guzia; nondikan noizbaiten ere, esagutu zuen ziar-tu Iziarko jenteak zer zan Zeruko Erregiñaren borondatea. Kontaera zarrak dio, gañera, gau artako gordetzalle ikusmiñ ta beste jente buru gogorrekoak, kastigatua izan zirala Jaungoikoa-ren ziorrarekiñ.

Onela diote aitona zarrak beuren aitonen entzunda; onela izkribatu zuan Aita Pralle Karmentar Joisé Jesús María ta Arakistain goak; onela, azkenez, esaten du D. Pedro José Aldazabalkoak; eta au da Andra María tñit Santa Iziar-koak agertu berrian lenengo egin zuan miraria.

Gerora izan diranak, antziñetatik esaten danez, ezin kontala dira, ta beuren agergerri asko esagutu ziran Iziar-ko eleiza lenengoetan. Aita Arakistain goian izendatuak aditu omen zion D. Maurizio Bizente Anziondo Gipuzkuan tñit esaguna zan zal dun bati<sup>1</sup> bazirala onelako señaletan asko Iziarko eleizan, ta kendu izan zirala eleiz-dorrea bi bidar berriztatzean.

(1) Aldazabal, pág.<sup>a</sup> 130.



Aita orrek berorrek izkribatu zuan lenengo eta Aita orren-gandik artuta Aldazabal-ek gero, gaur diran egunetan ere agure zarrak sutondoan illobatsoai kontatzen dizten mirarietako bat: onela da. Gizontso galdu gutiziz beterik zegoan batek pentsatu zuan bein Iziar-ko eleizan zegoan zillar gauza arrapatzea. Oneta-ko, erten zuan gau batean etsetik ta juan zan Iziar-ko eleiz ingurura; baña an galdu zan, ta egiñalak egiñ arren, ezin izan zuan billatu eleizako sarrera, ta gau guzia neketan alperrik galduta gero, biurtu bear izan zuan goizalderontz bere etsera. Erten zuan bigarren gaubean ere lengo ekai edo intenziuarekiñ baña lenengo gabeko ibilli alperrikakoak egin da, juanzan berriz bere etsera. Ori berori gertatu zitzaion irugarren gabea. Esan genezake Ama errukiorta Santak galtzen zuala bideetan gizon dollor ura, bukatu etzediñ bere burubide añ gaistoa.

Baña etzen gizontso makur ura zuzentzen orrenbesterekin; etzuan nai ikusi bere zeruko Ama-ren eskua zebillela, añ ondo esagutzen zuan bidea ez billatzean. Erten zuan lapur lotsaga-beak laugarren gaubean ere; zeruak utzi zuan libre, bide zuzenetara deiez kantsatu balitz bezela, billatu zuan lapurrak eleiz atia, sartu zan eleizan ostu zituan zillar gauza danak, erten zuan eleizatik, eta bazijoan bideetatik ziar bere iritziz oso seguruan. Ibilli zan legua asko gau artan (ala uste zuan beintzat lapurrak) baña jo zer naigabea beretzat! urrengo goitzean billatua izan zan eleiz ondoan bertan ezin ibillita lotuta balitz bezela gauza lapurtuak eskuetan zituala. Artu zuten justiziako gizonak beren kontura, autortu zuan bere pekatua lapurrak, ta urkatu zuan bere pekatua lapurrak, ta urkatu zuen gaur ere *urkamendi* esaten zayon mendian.<sup>1</sup>

Modu onetan kontatzen dira beste milla mirari Iziar-ko Amaren bitartez egiñak; Iziar ta Deba-ko erriak gaiño eldetsuetatik<sup>2</sup> libratzeak, Zumaya, Arrua, Zestua, Azkoiti, Azpeiti, Ezkioga, Billafranka, Goyaz, Alza, Motriko, Alzola, Eibar, Bergara, Durango, Abadiano ta beste erri askotako gaiña era askoetakoak

(1) Mirari onek iaakurgai ipuizko bat dirudi, baña nik uste det kontaera egiazkoa dala ta ez ipuia, bada gizon zintzo, argitsu ta men andikuak esana ta izkribatua da.

(2) Epidémicos.

osatzak; itsas gizon urrutietan arrantzan zebiltzanak ekaitz gogorronen artean galtzeko zorian zeudela libratzeak Iziar-ko Amari agindea egin ondorean, eta beste onelako asko. Ezin nezake nik danak emen izendatu, baña ezin nezake ere utzi mirarik arrigarrien batzuk esan gabe.

Ara bat. Aita Pralle José Jesus Maria ta Arakistain-goaren aurrean autortu zuan José Zigarán-ek berak aditu ziela gertatu zitzaion gizon biyai (bata Debarra, bestea Azkoitikoa) esaten, nola izanik biak preso artuak fede gabekuen artean, zeudela oso gaizki dorre altu batian, katigatuta. Egun batian, biak t̄sit atsekabez beteak ta larri zeudela, oroitu zan Debarra Iziar-ko Irudi miraritsuarekiñ, pistu zuan bere fedea ta dei egin zion arima arimatik onela: *«Birjiña t̄sit Santa Iziar-koa, ¿ez ote dezu aginduko ni presondegi onetatik libratzea? Eta jo miraria! gizon arrek, itz oyek esatean, ikusi zuan bere burua kate gabe ta oso askatua. Gertaera izugarri onekiñ bete ziran esperanzaz lagun biak, ta ala, askatua gelditu zanak erregutu zion besteari lagundu zezaiola an goian ikusten zuen leio batera igotzen, andikan bera saltatu zediñ. Besteak esaten zion gauza ura periltzua ta arriřkatua zala, baña aiñbeste erregu egiñ zioskan Azkoitiarra-ri, aiñbeste bidar esaten zuan Debarrak Iziar-ko Ama Birjiñak lagunduko ziela eze, bigundu zan Azkoitiarra ere ta lagundu zion besteari, zeñ, Iziar-ko Amari deiezka, saltatu zan leiotik bera amiltza bildurgarri batera, non arkitu zan batere miñik gabe Andra Maria Iziar-koa bedeinkatzen. Presondegian gelditu zana ere indartu zan beriala, saltatu zan bestearen gisa, ta gelditu zan batere eritasun gabe. Eta gero biak, Ama Birjiñaren laguntasuna oso agirian ezagutzen zuela, billatu zuen kristauen lurrera etortzeko bidea, ta Euskal-Errira eldu ziranean, juan ziran lenengo, etřetara baño len, Iziar-era, Zeruetako Erregiña bigun ta errukiorri ongi merezi zituan esker ugari ta biotzekoak ematera.*

Miraritsuagoa da oraindik Iziar-en antziñetatik esaten dan beste gertaera au: Iziar-tar bat zegoan Afrika-tarren artean preso, guziz gogor burniz lotua, aiñbesteraño eze, iltzeko etzuan asko falta. Oroitu zan beiñ baten urrengo egunean izango zala Iziar-en urteoro egiten zan Andra Maria-ren festa ederra. Orduan, Ama Mariari zion maitasunean pistuta alde batetik, ta bestetik

espirituko laguntasun gabe fedegabekoen artean iltzeko bildurrez, jaso zuan bere biotza Iziar-ko Birjiña gana, ta erregutu zion, bere borondatea bazan, ekarri zezala kristauen lurrera, eriotza on bat iduki zezan. Erregu au eginda beriala gelditu zan lotan, ta esnatu zanean, billatu zuan bere, burua Iziar-ko eleizaren atarian. Diotenez, gizon dosku ori, gertaera orretatik gero, iru egunean bakarrik bizi izan zan, ta utzi zuan bere arima Jaungoikareri eskuetan pake Santu opagarri batean.

Gertaera abezaz gañera Aldazabal-ek dakazki beste asko:<sup>1</sup> nola Motriko, Getaria ta Oriotar batzuek Mairuen eskuetatik libratuak izan ziran Iziar-ko amaren bitartez; nola *Juan Perez de Alos-ek* izan zuan Ama onen laguntza Afrikan preso zegoalarik,<sup>2</sup> nola Kantauriako it̄sasoan menderatu zuen euskaldunak etsai askozas indar geiagokoa; nola perill askoetatik atera ziran ondo Kantauriako ontzi gerrariak; ta beste onelako asko.

Nik emen aitatuak naikoa ta geiegi dira argiró erakusteko Andre Maria Iziar-koak zenbaterañoeko eskubidia daukan zeruetan, ta zenbaterañoeko errukia lurrian dabilzan bere debozizko seme maitientzat.

DOMINGO AGIRRE-KOAK.

(Bukatuko da)



(1) 170-garren orri-alde ta urrengoetan.

(2) Jaun onen gertaera berau bizi zan artean izkribatu zuan A. Arakistain jaunak.

# IZIAR-KO

## AMAREN KONDAIRA LABURT̄SOA



### VI

#### JAIERA<sup>1</sup>

Izanik añ andi ta neurrigabeak Andra Maria Iziar-koak bere semien artian zabaldu dituan mesediak, oso da siñisterraza berari jente askok erri ta erbestekoak denbora guzietan izan dioten jaiera edo debozioa.

Antziñenetakoa da. Garibay-k, Deba-ren gañean itz egiten duanean onela esaten du:<sup>2</sup> Deba-ko barrutian, *sortalderontz, dagola Iziar-ko Eleiza deboziazkoa it̄sas aurrean eta it̄sas gizonak, beren ontzietatik Eleiz andientsu ta deborizko au ikusteratzean, jaiera apartekoakiñ ta alaitasun andian egiten dituen sutunpagurra ta biotzeko debozioaren beste agergarri batzuek, erregutzen diotela Birjiña Jaungoikoa-ren Amari.*

Jakiña da, gañera Frantziatik Iziar-eraño etortzen zirala erromerizale asko doanki edo limosna ugariekiñ, Deba ta Iziar-en gordetzen diran paperetan izkribatuta dagon bezela; baita ere, nonnaiko jenteak, legoa askoetatik ekartzen zituztela aurt̄so jayoberriak, Iziar-en batiatuak izan zitezen; Gipuzkoa, Bizkaia, ta Franziaiko errietatik ekartzen zituztela lurrean ereiñ bear zituzten aleak Iziar-ko eleizan bedeinkatzera: eta gizon andi ta argitsu asko, eleiz gizonetatik asita gerralarien buru zi-

(1) Devoción.

(2) Gastel-Erriko kondaira-ren 15-garren liburu ta 10-garren buruan

ranak arte, etortzen zirala Erregiña oni laguntasun ta indarra eskatzera. Eleiz onetan izan diran gizon askoren izenak dakizkigu, bada izliribaturik daude, baña ez dakizkigu danenak. ¡Nork daki falta diranen artean bada Elkano-ren izena! ¡Nork daki, Aldazabal jaunak mugonez esaten duan bezela, Elkano umanta, eleiz onetan, Andra Maria Iziar-koaren urrean indartu bazan mundu zabalari jira-bira emateko! Eztet uste dala gauza siñisgaitza izanik Elkano kristau ona, ta Getariarra.

Baña ezdezagun gure gaiatik erten. Ama onen debozioan biltzen degu, geien ta aurrenengo beti izan dirala gure it̄sas gizon prestuak. Oso lenagoko denboretatik zan Iziar-ko eleizan Mariñelen Anaikidago<sup>1</sup> bat: añ lenagoko denboretatik eze, 1448 garrengo urtean, Anaikidago onetakoak, esaten zioten Gastel-Erriko Errege Juan II-garrenari *antziñetatik beren guraso ta lenendariak izan zuela Iziar-ko eleizan anaikidago edo billera egiteko oitura*. Nondikan ateratzen dan kontu, *kofradi* ori Deba-ko erria sortu baño lenago izan zezakeala, bada erri onek 1343-tik du bere jatorri edo asiera. Amaikida onetako festa nagusia egiten zan Ama Birjiña-ren Zerura Igoera-ko jaitik urrengo igande ta astelenean, ta festa ortara batzen ziran, Bizkaiko ta Franzia-ko portuetatik jente ugari ta fede berokoak. Iziar-tarrak jasotzen zuen urteoro, festa orretako, eleiz aurreko plazan, arbola andi bat lorez betea, ta arbola au erosten zuen mariñelak *eun errial zillarrezkotan*, esanaz, zorionekoa izaten zala arbola ura zarabillen ontzia.

Baña Ama Iziar-koaren debozioko lenengo mallan it̄sas gizonak biltzen baditugu ere, etziran berak bakarrik Iziar-ko Amaren semiak. Onontzagoko denboretan, 1743-an, sortu zan beste Anaikidago bat, *Cofradía del Tesoro de M.<sup>a</sup> S.<sup>a</sup> de Iziar* erderaz izendatzen zuena. Izkribatzen nagoan mai gañean daukat *kofradi* berri onetako liburua, ta bertan ikusten ditut daudela izendatuta. ez bakarrik Iziar-tarrak, ez bakarrik Deba, Motriko, Zumaya, Zarauz, Pasai ta Donostiarrak, baita ere Askizu, Zestua, Arrua. Azkoiti, Azpeiti, Aizarna, Eibar, Elgoibar, Anzuola, Bergara, Alzola, Mendaro, Andoain, Beasain, Billafranka, Berriatua, Berriz, Mallabi, Durango, Naparroa ta Obiedo-rañoko jentiak.

(1) Cofradía

Iziar-ko eleizak izan ditu, gañera, beste eleiza batzuek beze-la, beti beren Amaren ondoan bizi nai zuen emakume batzuek, *Sorora-ren* izenarekin esagutzen ziran serbitzariak. Aurrerago gauzarik garbiro ezpadakit ere, badakit 1743-an Ana Albizuri, Emerenziana Zinkunegi, María Josefa Gainza ta María Jesús Areizaga-koak egin zutela arande<sup>1</sup> bat, bizitza Santu bat eramateko Jaungoiko gure Jauna ta bere Ama t̄sit Santa serbituaz. Onela irakurri det gorago esan dedan Anaikidago-ko liburuan.<sup>2</sup>

Ez dezala iñork pensatu lenagoko denboretan zirala Iziar-erako debozio guziak, baña gaur, fedean aiñbeste epeltasun dagon egunetan, astuta bizi dala Iziar-ko Ama. ¡A! ez; ez naiz ni zarra oraindik, ta nik ere nere et̄set̄soan ikasi nuan umetatik Ama onenganako maitasun ta debozioa, ta orduan ikusi nituan lenengo Euskal-Errian añ zabal zebiltzan Andra María Iziar-koaren irudiak, paperetan, bronzean ta zillarrean nolabait moldatuta.<sup>3</sup> Gerora berriz, nere erritik kanpora ibilli naizanean, nere ibilleretako erri askotan ikusi ditut irudi oyek, ta baita ere mugona izan det erri oyetan, Andra María Iziar-koarentzat gordetzen zan esker ta maitasuna ezagutzeko. ¡Zenbat bidar, gañera, billatu izan ditut Euskal-Erriko bideetan, Iziar alderontz zijoazela, euskaldun garbien usaia zaramen aldra doetsuak, jai-egunetako jañtziekin chukun apainduta, kandelat̄soa eskuan ta biotzetan fede bizia zutela noski, Zeruetako Erregiñari mesede

(1) Reglamento.

(2) Aldazabal jaunak dio, 1504-garrengo urtean nai izan zuela komentu bat ipi ñi Deba-ko barrutian A. S. Franzisko-ren semeak, ta onetarako eskatu zuela Iziar-ko eleiza, beren ongille D. Juan Perez *Liama-ko* ta D.<sup>3</sup> Maria Ibañez Sasiola-koaren bitartez; baña eskari ura etzala arretaz artua izan, etzuelako utzi nai beren eleiza maitea, ez erriak ta ezta ere eleiz gizonak; eta orduan San Franzisko-tarren Ongille esan ditugunak, jaso zuela Sasiola-ko komentua. Gertaldi onen gañean gauzacho batzuek esateko gogua badaukat, baña ez ditut esango: bakarrik naidet garbiro jarri, Sasiola-ko komentua egin zuan jauna etzala izendatzen Juan Perez *Liama-ko*, ezpada ze Juan Perez *Linoka-ko*, Ondarroa-n dagon S. Iñazioren Amaren jayotecheko semea.\*

\* Ikusi lezake A. Henao, Tolosa-n egindan moldizkira berrian, 47-go orrian.

(3) 1885-eko Jende-billerako Tolosan egin ziran eskapularioak, Paris-en medallak. Eskapularioak eztakit zenbat ziran, milla asko; baña geiago eskatu ziran oraindik ontzu.

bat eskatzera: edo artutako mesedeakgatik eskerrak emateko asmoetan!

Azkenez, Ama Birjiña Iziar-koari, gaurdan egunean ere gordezten zayon jaiera edo debozioa ezagutzeko, naikoa da guziok ikusi degun 1885-eko euskaldun fede berokuen maitasunezko bidego<sup>1</sup> edo batuera. Orduan, beren errietako apaiz-artzaiak aurretik zituela, inguratu ziran Iziar-en zortzi millarenbat euskaldun, nekeari gañ eginda oñez geienak, urrutietatik, gabeko ta goizaldeko orduetan; Ama Santaren irudi bedeinkatua lepotik bera agirian jantzita erri guziaz ejenplu osasungarria emanaz; seda ta urrezko bandera ederra aideratuaz; festa orretarako izkribatu ziran kantu gozoe kiñ euskal-mendietako oyarzunak esnatzen zituztela Ama maitea bedeinkatzeko. Orduan, Obispo jaunarekiñ batera, etorri ziran Iziar-era Araba-ko jentea, ta Bizkai-koak, aldra andietan Gipuzkoa-ko mugarrietatik barrura zetoztela, ematen zuen, errien sarreran, beren ibillerako arrazoi ta albistea, kantu gozo batean esanaz:

«Amaganako amodiuk  
Isioturik garuaz.»

Mugaldi onetan batu ziran Iziar-en bioliñ soñularirik onenak, kantatzallerik garbi ta egokitsuenak, euskal-iztunik ederranak; mugaldi onetan neurtu zituen beren indarrak Ama Iziar-koaren onran, izkribatzalleak, pintatzalleak, musika-zaleak; ta azkenez, zabaldu ziran aomen andian, ta moldizkiratu ziran Euskal-Erriko paperetan Iziar-en egin ziran jai eder ta ekusgarriak.

Uste det agertua gelditzen dala, itsas gizonak ta leortarrak, euskaldunak ta arrotzak, gizon andiak umill ta t̄sikit̄soak bezela, sasoi, toki ta denbora guzietan, maitatu, bedeinkatu, ta amatzat ta zaintzalletzat iduki izan duela Andra María Iziarkoa.

## VII

### ERLIKI TA BARKAMENAK

Deba leñargiko seme argidotarrak arduratsuak ziran, sasoi batean, santu andien erliki beneragarriekiñ aberastzeko beuren

(1) Peregrinación.

gogozko Iziar-ko eleiza entzute andikoa. —*Juan de Lastur*, Flandes-en Españatar gerralarien dirugordetzalla zanak, biraldu zuan 1580-garrengo urtean, Iziar-ko eleizarako, Amaika milla Ponzel edo Birjiñetako buru bat osoa.<sup>1</sup> Baita ere Ama Birjiña tšit Santaren buruko iru ille, Jesús iltzan kurutze santuaren zati bat, S. Andres-en buruko puska bat, S. Blas Martiria-ren azur atal batzuek, eta beste onelako erliki edo ondonen asko.

Aita Pedro Agirre. S. Iñazioren semeak, 1607-garren urtean eman zituan Iziarrerako, Aita Juan Bautista Pacheko-k Erromatik erakarri zituan erliki abek: Kalisto Santu Martiria-ren sayetz azur bat, S. Primo Martiria-ren bernazaki bat, Santa Luzia Martiria-ren azur bat, beste bat S. Patermo Martiria-rena, beste bat S. Iñazio Martiria-rena; ta gañera S. Leon. S. Alifax, S. Jazinto, S. Pio, Santa Liberata, S. Balerio ta S. Antonio Martiria-renak. Beste batzuek ere bai, baña zeñ Santuenak diran ezta jakiñ izan.

Erliki guzi aben egjatzalleak<sup>2</sup> Iziar-en gordetzen dira, ta nere aurrian daukat izkribatzen nagon unetšo onetan.

Aita Agirrek eskeñitako erliki abartzat Aita Santu Klemente VIII-garrenak eman zituan, 15 urtekiko, Barkamen Osuak, ta irabazten ziran S. Juan egunean, Santu Guzien-ean, Kurutze Santua billatu zan egunean ta S. Joséren-ean, *Prinzipe Katolikuen* pakerako, Fedetsaigoak sustrayetatik kentzeko, ta Eleiza Ama Santaren goyanderako Iziar-ko eleizan erregututa. Baita ere, *konfesatu* ta *Komunio Santua* artuta gero, eleiza onetan esan dan bezela erregutzen zan bakoitzean, 100 urteko Barkamenak, ets *konfesatu* edo autortu gabe ta Komunio Santua artu gabe egiten bazan erregua, 10 urteko Barkamenak.

Barkamen abek berriztatu zituan Benedikto XIV-garrenak.

Gañera, Malaga-ko Apezpiku edo Obispo-Kardenal Molina jaunak eman zituan 1742-an, esan diran erlikiak gurtutzen zituén guzientzat, pekatu eriozkoan zeudenak-gatik erregutuaz, 100 eguneko barkazioak;—D. Juan Bautista Barni, Aita Santuaren Españarako Mandatariak, urte ortan bertan, 40 egunekoak; D. Franzisko Iñazio Añoa ta Busto-ko Zaragoza-ko Arzobispoak,

(1) Beste bat biraldu zuan Deba-ko eleizarako.

(2) Auténticas.



beste 40 egunekoak; ta D. Gaspar Miranda, Iruña edo *Pamplo-na-ko* Obispoak beste 40 egunekoak.

Jaun abek berak eman zituen ere Ama Birjiña Iziar-koaren edo bere irudien aurrean *Agur María* bat edo bi ta *Salve* bat edo bi erreztatzen zituenentzat 220 eguneko parkazio; eta, azkenez, itsasotikan Ama bedeinkatu oni sutunpagurra egiñ, edo *Agur María* edo *Salve* bat erreztatzen zuentzat, 180 eguneko parkazio.

Abek izan dira Iziar-ko eleizan edo Iziar-ko Birjiñaren irudi aurrean edozeñek irabazteko modura emandako espiritu-ko aberastasun ugariak, zeñtzen paper siñisgarri guziak nere begiak ikusi ditudan.

Beste aberastasun batzuek badira Gregorio XV ta Benedikto XIV-garrenak eta Panplonako Obispo Miranda jaunak, eleiz onetako Anaikidetara-ko askozaz ugariako emanak, baña ez ditut emen ipiñten danen irabazgarriak eztiralako.


## VIII

### ONDASUNIK ANDIENA

Esan ditudan aberastasun guziak baño gauza aberatsagoa, ondasun guzien ondasuna, euskal-mendietako lora eder bere egitada miragarrikoen usai gozoak alderdi guzietara zabaldu dituana, Kantauria itsasoko altiste<sup>1</sup> baliozkoa, arrantzalien Izar argitsua, Aingeruen Erregiña, Jaungoikoa-ren Ama: ori da Iziar-en dagoan ondasunik andiena.

Berari eskatzen diot lagun ta argi daidala nere pausu guzietan. Amen.

DOMINGO AGIRRE-KOAK.



(1) Perla.